



**“Joanen ilargia”**  
**ikuskitunaren txosten**  
**pedagogikoa**

**Teatre Nu**

***Igualada, 2007ko maiatza***

## **Aurkibidea**

Egilea .....	<b>iError! Marcador no definido.</b>
Ikuskizuna .....	<b>iError! Marcador no definido.</b>
Antzerki taldea .....	5
Ilustrazioa eta irudiak .....	<b>iError! Marcador no definido.</b>
Gaia: emozioak.....	9
Jarduera-proposamena .....	10
<i>Joanen ilargia</i> ipuinaren testua .....	<b>iError! Marcador no definido.</b>
Ikuskizunaren fitxa teknikoa .....	<b>iError! Marcador no definido.</b>

## Egilea

*Joanen ilargia* ikuskizuna Carme Solé Vendrell-ek idatzi eta irudiz hornitutako ipuin batean oinarritua dago. Liburuaren egilea 1944. urtean jaio zen eta hogeitazero gerotik haurrentzako liburuak idaztea eta irudiztatzea du ogibide. Berak asmatutako istorioak ez ezik, beste idazle batzuek idatzitakoak ere hornitu ditu bere marrazkiez.

Miquel Martí i Pol-en *L'aniversari*, Pere Calders-en *Raspall*, edo *Un ós nuvolós* dira, adibidez, *Joanen Ilargia*-ren egileak irudiztatu dituen zortziehun liburu baino gehiagoren arteko batzuk. Carme Solé Vendrell-en marrazkiek berez-berez azaltzen dizkigute istorioak.



Pertsonaiek beren emozioak erakusten dizkigute, eta haiek kokatuta dauden espazioek ere protagonismo handia hartzen dute obra osoan.

## Ikuskizuna



Teatre Nu taldeak antzerkirako egokitu duen lan honetan bi pertsonaia baino ez zaizkigu ageri: haurra eta haren aita. Bi pertsonaiak uharte batean bizi dira, eta uhartea bera ere, itsasoarekin eta zeruarekin batera, beste pertsonaia bat bilakatzen da, zeinak istorio honetako protagonisten bizimodua baldintzatzen baitu.

Euria eta haizea bezalako elementuak, argizagiak, eta, batez ere, ilargia, istorioako pertsonaiak dira halaber, eta eragin handia dute aita-semeen bizipenetan.

Joan haurrak bere aitaren gaixotasuna nola bizi duen eta hari laguntzea nola erabakitzen duen azaltzen digu *Joanen ilargia* ipuinak. Irudietako bakoitzak istorioaren une jakin bat eta pertsonaien emozio jakin batzuk erakusten dizkigu. Gertaerak bata bestearen ondotik nola datozen, emozioak era batekoak edo bestekoak dira. Zoriontasuna, bakardadea, adorea, beldurra edo ausardia dira Joanek bidaia honetan

bizi dituen emozioetako batzuk, bai ipuina bai ikuskizuna gidatzen dutenak.

## Antzerki taldea

Teatre Nu taldearen helburu nagusia haurrentzako ikuskizunak sortzea da. Antzerkirako egokitu dugun ipuin honen egileak bezala, guk ere istorioak kontatzen ditugu, eta istorio horiek sortzen dizkiguten emozioak haurrei helaraztea da gure asmo nagusia.

Antzerki talde honek aurkeztu dituen azken ikuskizunetan, idazleek aurrez idatzitako istorioak egokitu izan ditugu. Literatura katalana istorio ederrez beteta dago, eta guk haurrei eskaini nahi dizkiegu antzerkiaren bitartez.



2000. urtean, *L'home just* antzeztu genuen, Joan Amades-ek han-hemen bildutako herri-ipuinetatik abiatuta sortu zuen istorio bat, justiziaz eta heriotzaz hitz egiten diguna.



2002. urtean, *En Bolavà detectiu* aurkeztu genuen, Folch i Torres idazlearen eleberri dibertigarri baten egokitzapena. Esan beharra dago Folch i Torres-ek haurrentzat idazteari eskaini ziola bizitzako zatirik handiena.



2003. urtean, *Els nens de la meva escala* aurkeztu genuen, Joan Salvat Papasseit poetak bere alabentzat idatzitako testu batzuen egokitzapena. Joan Salvat Papasseitek helduentzat idatzi zuen batez ere, baina oso gogoan izan zuen beti haurtzaroaren gaia.




Urtebete geroago, *La Ventafocs (potser sí, potser no)* eman genuen, Josep M. Benet i Jornet antzerkigileak *Errauskine* ipuin ezagunaren zenbait bertsiotatik abiatuta idatzi zuen testua.

## ***Ilustrazioa eta irudiak***

*Joanen Ilargia* ipuina ezin da hitzez bakarrik azaldu, hitzez eta irudiez izatekotan, baina irudiez batez ere.

Azaltzen dugun istorioa bezain garrantzitsuak dira obran zehar agertzen diren irudiak. Ikuskizuneko eszenetako bakoitza ipuinaren irudi batean oinarritua dago. Irudiek jasotzen dituzten uneetako bakoitza erakusten da obran zehar. Gure asmoa ez da izan liburuko marrazkien kopia zehatza egitea, haietan agertzen diren gertaerei eta xehetasunei bizia ematea baizik.





Ipuina antzerkira egokitzeko, liburuko hitzetan eta marrazkietan oinarritu gara. Antzezleek, ipuina kontatzeaz eta txotxongiloak erabiltzeaz gainera, irudietan agertzen diren objektuak manipulatzeko dituzte. Egilea berak lan plastikoan parte hartu izana oso lagungarri gertatu zaigu obra hau, duela hogeita bost urte sortua, fideltasunez taularatzeko, eta arretaz aztertzeko. Ipuineko marrazkiak eta ikuskizunean agertzen diren objektuak ez dira, beraz, berdin-berdinak, baina espiritu berbera transmititzen digute

Ipuina antzerkira ahalik eta hobekien egokitzeko, naturako soinuak erabiltzea erabaki dugu, indar gehiago ematen baitiote istorioan zehar agertzen diren (eta irudietan hain inportanteak diren)

elementuei. Ikuskizuneko musikek ere pertsonaiek ipuinean zehar bizi dituzten emozioak nabarmentzen laguntzen digute.

## **Gaia: emozioak**

Ipuina irakurriz eta begiratzuz ikus dezakegunez, *Joanen ilargia* izeneko istorioaren gai nagusia aita gaixorik duen haur baten emozioak dira, edota, hobeto esanda, haurrak emozio horiek bizitzeko modua. Ilargia lagun duela, haurrak aitaren osasunaren bila egiten duen bidaian agertzen dira emozio horietako gehienak.

Aita-semeen hasierako **zoriontasuna**, haurrak Ilargiari begira sentitzen duen **poza**, **bakardade** eta **beldur** bihurtzen dira aita gaixotzen denean. Aitak arrantzara joaten denean egiten duen ahalegina zoritxar bilakatzen da, ekaitz gau batean itsas kolpe batek osasuna kentzen dionean.

Aitaren gaixotasunari **larritasunez** eta **bihozminez** egiten dio aurre Joanek. Aldi berean, baina, harrigarritzko heldutasuna erakusten du, aita tapatzen eta harentzat edari bero suspergarria prestatzen ikusten dugunean. Heldutasun hori are garrantzitsuagoa begitantzen zaigu, Joanek, **kemenez** beterik, saskia hartu eta aitaren osasunaren bila abiatzen denean, Ilargia lagun.

Joanek marinelen hilerrian sentitzen duen **oroiminaren** ondoren, harrigarria da itsasoan hondoratu eta aitaren osasunaren bila abiatu aurretik erakusten duen **adorea**. Aitaren osasuna berreskuratu ondoren, Joan korrika bueltatzen da etxera osasuna aitari itzultzera. **Emozioak** gainezka egiten du une horretan, eta hasierako **lasaitasuna** eta **zoriontasuna** itzuliko dira etxera, aita osatu bezain laster.

Letra lodi beltzez idatzi ditugu irudietako bakoitzarekin lotutako emozioak, istorioa eszeneratzen hainbeste lagundu digutenak. Ugari dira

emozio unek ikuskizun honetan, eta guk pixkana-pixkana eskaintzen ditugu, ipuinaren batasuna une batean ere begi bistatik galdu gabe.

Obraren alderdi plastikoaren inguruan egin daitezkeen lanak alde batera utzita, *Joanen ilargia* ikuskizunaren inguruan aurrera eraman daitezkeen jarduera nagusia istorioan agertzen diren emozioekin lotuta dago, gure ustez.

### **Jarduera-proposamenak**

- Arretaz aztertu nola eragiten dieten atmosfera gertakariak istorioari. Eguraldia pertsonaien gogo aldaratearen oihartzuna da. Zoriona baretasunaren eta eguraldi onarekin batera doa, ekaitzak gaixotasuna dakar eta haizeak haurraren larridura. Haurrak aitaren osasuna berreskuratzen duenean, haizea baretu egiten da, lasaitasuna nagusitzen da. Esan nola eragiten digun euriak, haizeak, hotzak edota elurrak. Ohartu gure gogo aldartea aldatuz doala, urteko zer arotan gauden, zer eguraldi egiten duen.
- Konparatu elkarrekin ipuineko irudiak eta ikuskizuneko argazkiak. Zertan dira berdinak, zertan desberdinak?
- Letra lodi beltzez idatzi ditugun emozioen artean, zeintzuk ezagutzen dituzue? Badakizue berorien esanahia? Nola bizi izan dituzue emozio horiek, bizi izan badituzue? Ezagutzen duzue emozio horiek bizi izan dituen norbait?
- Joanen aita gaixorik dago. Nola erasaten digu gaixotasunak? Nola sentitzen gara gaixorik gaudenean? Nola sentitzen gara maite dugun norbait gaixorik dagoenean?
- Aukeratu dugun ipuina ez da hitzez bakarrik azaltzen. Arretaz begiratu irudiei, eta esan zer hitz gehi litezkeen, marrazkietan gertatzen den guztia azaltzeko. .

- Aukeratu gustuko duzuen ipuinen bat, eta marrazkien bidez azaldu, hitzik erabili gabe. Ipuineko unerik garrantzitsuenak aukeratu behar dituzue, eta une horietan gertatzen denaren marrazkia egin.
- Aukeratu gustuko duzuen marrazki edo margolan bat, eta irudian gertatzen denari buruzko istorio bat asmatu, han agertzen diren pertsonaiak, euren arteko harremanak, zertan ari diren, eta abar azalduz.

### **Joanen ilargia *ipuinaren testua***

Joan zoriontsu bizi da bere aitarekin.

Joanen aita arrantzalea da. Beti gauez ateratzen da arrantzara.

Bitartean, Joanek ilargia izaten du lagun.

Ekaitz gau batean, itsas kolpe batek kendu egin dio osasuna Joanen aitari. Osasuna, arrain ikaratu bat bezala, ihesi doa itsas hondorantz.

Etxera datorrela, egunsentiko lehen argiarekin, aitik galdua du masailetakoa kolorea. Arrastaka darama txalupa hondartzaraino.

Gaur gauean ez du ezer harrapatu.

Astiro igotzen ditu eskailera mailak.

Joanek ia ez du lorik egin gau horretan: ilargiak ezin izan dio lagundu eta haizeak beldur handia ematen zion.

Aita ondo-ondo tapatzen duen bitartean, hotzez dardarka baitago, Joanek bere beldurraren arrazoia ulertu du.

Egun osoan isil-isilik zaindu du bere aita.

Gaur ilargia itzuli da. Hari begiratu, eta negar egin du Joanek. Ilargiak saski bat hartzeko esan dio, eta jarraitzeko berari: elkarrekin bilatuko dute itsasoan aitaren osasuna.

Lasterka doa Joan. Ondo asko daki nora joan behar duen. Beldur da. Haizeak indarrez jotzen du. Marinelen hilerria itzalez eta aienez beteta dago.

Baina ausarta izan behar du, eta altzifrearen gain-gainera igo.

Joan ilargiari hurbiltzen zaio, jaitsi egin baita pixkanaka berarekin elkartzeko. Joanek bere eskuetan hartzen du. Hilerrria argiz bete da. Han atsedean hartzen duten guztiez oroitzen da Joan.

Ilargia faro baten antzekoa da. Mugitu ahala, dena argitzen du. Azkar ibili beharra dago, gaua laburra da eta egunsentia iristen denean beranduegi izango da. Harkaitzak aiztoak eta lantzak dira; urak pazientziaz zorrotu ditu negu osoan zehar. Kaioak umore txarrez esnatu, eta ahotsik gabe geratu nahi balute bezala egiten dute garrasi. Zuhaitzak eta harkaitzak, Joanek hain ongi ezagutzen dituenak, erraldoiak iruditzen zaizkio orain, mehatxuka. Baina ilargiak adorea ematen dio.

Haizea zertxobait baretu da. Orain biririkak airez bete eta itsasoaren hondoraino jaitsi behar da.

Gaua egunsentiaren hurbiltasuna sentitzen hasia da. Itsas azpian, leize baten hondarrean, olagarro erraldoi bat Joanen aitaren biziarekin jolasten dabil, garro artean duela. Ilargia zilarrezko globo handi bat da eta olagarroa itsututa geratu da. Orduan piztiak nahiago du ilargia, eta harrapatzen saiatzen da. Baina ilargiak bere argitasun guztia biltzen du eta olagarroa ikusmenik eta arnasarik gabe geratzen da.

Haizeak, orain goxoa eta lagun ona, etxera darama Joan. Itsasoak lasai hartzen du arnasa. Ilargia zeruan gora doa astiro-astiro.

Joanek besoak luzatzen ditu aitarengana. Badatozkio koloreak masailetara, bi lore gorri bezala.

Ilargia, zerutik, irribarrez ari da.

## ***Ikuskizunaren fitxa artistikoa***

Ipuinaren egokitzaipena: Teatre Nu

Antzerki zuzendaria: Víctor Borràs

Antzezleak: Núria Crosas eta Francesc Mas

Ipuinaren euskararako itzulpena: Asun Garikano

Euskara irakaslea: Antton Olano Irurtia

Eszenografiaren diseinua: Teatre Nu

Txotxongilo-egilea: Teatre Nu

Txotxongilo-buruen eta ilargiaren egilea: Carme Solé

Eszenografiaren eta txotxongiloen pintura eta bukalana: Carme Solé

Eszenografiaren eraikuntza: Jaume Piera eta Joan Hervàs

Jantzien egilea: Teresa Solà

Argiak eta soinu-efektuak: Gerard Custey

“La Lluna d’en Joan” musika-lana: Jaume Escala

“La Lluna d’en Joan” musika-lanaren bertsoak: Oriol Canals eta Ricky

Falkner

Ikuskizunaren beste musika-lanak: Oriol Canals eta Ricky Falkner

Ekoizpena eta banaketa: Maria Hervàs

Ekoizpen laguntzailea: Mercè Hervàs